

## Hitza

S. Joan Ebanjelariak erabiltzen duen Logos edo latinezko Verbum euskaraz. Jainkoaren Semeari ematen diote deitura hori S. Joanez eta teologiak, Jesukristogan Aitarean agerkunde bizia gertatu omen delako.

Ik. Logos; Jesukristo; Jainkoaren Semea; Agerkundera.

## Hitzaldia (erlijiozkoa)

Ik. Sermoia; Predikua.

## Hitzemana

Ik. Agintzaria.

## Hizkuntza (eta Erljioa)

Erljioa eta hizkuntza oso lotuak daude elkarrekin historian zehar, hainbat aldetatik.

### 1. Hizkuntzen jatorria

Hizkuntzen ugaritasuna eta hizkuntza bakoitzaren jatorria argitu nahian, azalpen mitiko-erlijiozkoak aurkitu izan dira askotan. Horietakoa da Babel dorrearen \*mitoa. Herri bakoitzak jatorri sakratua egotzi izan dio sarritan bere hizkuntzari.

### 2. Hizkuntza sakratuak

Gurtzako hizkuntza ere esaten da. Historian zehar sarritan herri-hizkuntza eta gurtzako ezberdinak izan dira. Hizkuntza sakratuak oso iraunkorrak izaten dira, eta herri-hizkuntzak aldatu eta berritzen diren bitartean, hizkuntza sakratuak erlijioari loturik irauten dute, forma zaharrari eutsiz eta herri-hizkuntza ezberdinen gaintetik geratuz. Horrela izan da latina Eliza Katolikoan, orain dela gutxirarte. Kristautasunaren historian hebraiera, grekoa eta latina hartu izan dituzte hizkuntza sakratutzat.

### 3. Erljioen eragina

Erljiozko mezuaren bitarteko denez, erlijioak sarritan eragin handia eduki du hizkuntzaren historian. Erljio berriren bat Herriren batera sartzeak edota zaharren bat eraberritzeak hizkuntzako ondorio sakonak ekarri izan ditu, erljioa bera sistema sozio-kulturaletan funtsezkoa zen garaietan batez ere.

Erljioak erabiltzen duen hizkera-modua arau bihurtzen da sarritan herriaren hizkuntzan, honen normalkuntzarako bide bilakatu. Ezaguna da bereziki Zirilo eta Metodioren eragina, eslaviarrak ebanjelizatzean, \*Biblia eta \*liturgi liburuak eslaviera itzuli zituztenean, horretarako alfabeto berria asmatuz eta eslaviera idatziaren oinarriak jarritz; era berean, Luter-en Bibliaren

itzulpenak eragin handia eduki du alemaniera moderno eta idatziaren eratzean.

Badirudi, Babel dorrearen mitoa, hizkuntza bakarraren bidez herri guztien gain inperio bakarra ezarri nahiaren kontrako erreakzioztat ulertu behar dela: hizkuntza ugarien arteko egoera baketsuan komunikaziorako zen giza-hizkuntza, Herrien zapalkuntzarako tresna bihurtzearen kontrako erreakzioa alegia, Jainkoak eragina eta bedeinkatua. Horrela, harrokeriaren eta bekatuaren ondorioztat agertzen da handik aurrera hizkuntzen aniztasuna, baita Herrien arteko banantze eta etsaigoaren ezaugarri gisa ere, berez egoera normala eta Herri bakoitzaren berberatasunaren euskarri eta finkatzaile zena.

Horregatik Itun Berriaren arabera, hizkuntza ezberdineko Herriak eta jendea elkarrekin berriro komunikatzea eta adiskidetzea da Jesukristok ekarritako \*salbamenaren zeinuetako bat.

Hizkuntzen dohaina, edo hizkuntza ezberdinak mintzatzekoa, lehen aldietako kristauen artean eta bereziki Mendekoste-egunez gertatu omen zena, Babelen gertaturikoaren alderantzizko fenomenotzat jo izan dute exegetek sarritan. Dena dela, Babelako dorrearenean Jainkoa Herrien hizkuntzako askapenaren alde (eta inperioaren hizkuntza bakarra ezartzearen kontra) atera bazen, badirudi Mendekoste-egunekoa mezu haren berrespena dela funtsean, apostoluei entzuzera Herri ezberdinetatik etorritako jendeen hizkuntzak balioberriturik eta sendoturik gelditzen bait dira, Ebanjelioa adierazteko eta aditzeko bide gisa.

Ik. Kultura eta erljioa; Kulturaztapena; Babelako dorrea; Glosolalia.

Paulo Agirrebaltzategi

## Hobenezintasuna

Hutsezin(tasun)a ere esaten da, norbaiten jokabideari dagokiona.

Jainkoari dagokio funtsean tasun hori. Kristau-teologiak Jesukristori egozten dio aurrenik: Jainko-gizon izanik, haren giza nahimena jainkozko nahimenak hartua omen zeukan, bi nahimenek norizan bakarrean batasun osoa egiteraino.

Orokorki, grazian hildakoei dagokie dohain bera, egoera horretan sendoturik eta finkaturik gelditzen bait dira, kristau-teologiaren arabera.

Teologia katolikoak, berriz, dohain horixe egozten dio Ama Birjinari sortzetik heriotzeraino, Jesukristori begira zuen be-